

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

16/2019 Foru Agindua, uztailaren 22koa, zeinaren bidez onesten baita María Emilia Montoya Martínez de Santos izendatzea behin-behinean eta halabeharrez Lantarongo Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko

Lantarongo Udalak jakinarazi dio atal honi halabeharrezko eta behin-behineko izendapen horren beharra duela, Álvaro Ainsa Cajal udaleko idazkari-kontuhartzailea oporretan den bitartean ordeztzeko.

Horregatik, proposatzen du behin-behineko izendatzea María Emilia Montoya Martínez de Santos, udaleko funtzionarioa, administrari lanpostuan dagoena.

Halaber, proposatzen du funtzionario behin-behineko izendapena egitea 2019an zehar ezintasun kasuetan edo, titularra oporretan egoteagatik, norberaren gauzengatik edo bestelako arrazoiengatik, ez dagoenean, betiere hilabeteko aldia gainditzen ez bada.

Bat etorri estatu osorako gaikuntza duten toki administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidez eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Emilia Montoya Martínez de Santos Lantarongo Udaleko behin-behineko idazkari-kontuhartzaile izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan 2019ko abuztuaren 1etik 23ra, egun biak barne, titularra ez dagoen bitartean. Halaber, behin-behineko izendapena egiten da 2019an zehar ezintasun kasuetan edo, titularra oporretan egoteagatik, norberaren gauzengatik edo bestelako arrazoiengatik, ez dagoenean, betiere hilabeteko aldia gainditzen ez bada.

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi baino ez du indarririk.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Lantarongo Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta berau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 22a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SÁENZ